

1. GO SARIA

1.200

AZKUE
FUNDAZIOA

DANOBATGROUP

2. SARIA

300

XIV. GAZTEZULO BIDEKO LEHIAKETA

**ISTORIOAK IRUDI BIDEZ KONTATZEA
GUSTUKO BADUZU, NAGIAK ATERA
ETA HASI FILMATZEN!**

**LANAK ENTREGATZEKO EPEA:
APIRILAREN 14TIK EKAINAREN 9RA**

INFO+: gaztezulo.eus





bideo lehiaketa

NORK HARTU DEZAKE PARTE?

16 urtetik gorako gazteek. Bestalde, bideoan 16 urtetik beherako pertsonarik agertuko balitz, ezinbestekoa litzateke guraso edo tutoreen baimena izatea.

ZE BALDINTZA BETE BEHAR DITUZTE LANEK?

Aurkezten diren bideoek aurten grabatuak, originalak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Ez da onartuko aurrez beste lehiaketaren batean aurkeztutako lanik.

IRAUPENA

Gutxienez minutu 1 eta gehienez 3 minutu (kredituak barne).

GAIA

Nahi duzuna konta dezakezu, mugarik ez!

OBJEKTUA

Film labur bakoitzean, **EZINBESTEAN**, **GAZTEZULO PAPERERZKO** aldizkaria, aldizkari **DIGITALA** edota **gaztezulo.eus** webgunea azaldu behar dira (zeharka zein istorioaren elementu garrantzitsu gisa).

HIZKUNTZA

Oso garrantzitsua: bideoak hizkuntz edukiren bat izatekotan (ahotsa, musika, kartelak, elementu grafikoak...), honek **EUSKARAZKOA** behar du izan. **EZ DUGU ONARTUKO baldintza hau betetzen ez duten bideorik.**

LANAK ENTREGATZEKO EPEA

Bideoak **apirilaren 14tik ekainaren 9ra** aurkeztu behar dira, eguerdiko 12:00ak baino lehen.

BIDEO KOPURUA

Pertsona edo talde bakoitzak nahi beste lan bidali ditzake.

TEKNIKA

Edozein teknika eta estilo erabilitako bideo-lanak onartuko ditugu.

FORMATUA

.mov eta **.mp4** formatuan bidalitako bideoak onartuko dira.

ERANTZUKIZUNA

Parte hartzeak esan nahi du egileak aitortzen duela bidalitako lanaren eta haren edukia arduraduna dela.

ERREPRODUKZIO ETA ZABALKUNDERAKO ESKUBIDEAK

- Onartutako bideoen egileek **GAZTEZULO**ri uzten dizkiete euren irudien komunikazio eta erreprodukzio-eskubideak.
- Antolatzaileek beren gain hartzen dute bideo batzuk lehiaketatik kanpo uzteko eskubidea; batetik, giza eskubideen urraketa, bortizkeria, irainak, arrazakeria, sexismoa edota errespetu faltak adierazten duten lanak eta bestetik, aurretik aipatutako baldintzak betetzen ez dutenak ere.

NOLA PARTE HARTU?

1. **Gaztezulo.eus** webguneko **'Bideo Lehiaketa'** atalean topatuko duzun formularioa bete. Bertan, taldearen izena, taldekideen izen-abizenak, herria, kontaktua, bideoaren izenburua eta deskribapen labur bat zehaztu beharko dira, besteak beste.
2. Bideoak online bidalketa sistema baten bidez (**tori.eus** edo **wetransfer.com**) bidali behar dituzu zuzendaria@gaztezulo.eus helbidera.
3. Ikusleen botoak eta iruzkinak ekainaren 2a arte jaso ahal izango dira **gaztezulo.eus** webgunearen bidez.

Jasotako bideoak **GAZTEZULO**ren **YouTube**ko kanalera igo eta **gaztezulo.eus** webean publikatzen joango gara. Beraz, zenbat eta lehenago bidali, orduan eta ikuslearen Saria irabazteko aukera gehiago!

EPAIMAHAIA

Hiru adituk osatutako epaimahaia lanak ikusi eta baloratuko ditu kalitate teknikoa, originaltasuna eta sormena kontuan hartuta. Aurtengoan **PANTAILAK EUSKARAZ** ekimeneko lantaldea, Alex Aginagalde (Donostia, 1981) ordezkari gisa izango dugularik, @elemelonsv TikToker eta eduki sortzailea (Zumaia, 2000) eta Iruñe Astitz (Barañain, 1991) kazetaria eta eduki sortzailea izango ditugu lan hori burutzen.

SARIAK

1.go saria: bideo onenaren egileak 1.200 euroko saria jasoko du*.

2. saria: bigarren bideo onenaren egileak 300 euroko saria jasoko du*.

Ikusleen saria: **gaztezulo.eus** webgunean **ekainaren 16an**

12:00etan ikusleen boto gehien dituen lanaren egileak hainbat produktuz eta **GAZTEZULO** materialez osatutako opari sorta bat irabaziko du.

* *Ogasunaren legediaren arabera, sarietarako dagokien PFEZa atxikiko zaie.*

SARI BANAKETA EKITALDIA

Ekainean izango da eta sari banaketa ekitaldia zuzenean emango dugu geure Twitch kanalaren bidez (**twitch.tv/gaztezulo**), irabazleekin zuzeneko konexioak egingo ditugu, epaimahaikideen hitzak jasoko ditugu eta sorpresak ere egongo dira.